# MINTZALAGUNA

## MINTZALAGUNA: PRAKTIKATU ETA BIZI




**Euskara praktikatu** nahi baduzu, baina ez daukazu norekin egin, edo euskalduna izanda euskaraz bizitzeko aukera berrien bila bazabiltza, hainbat proposamen dauzkagu zuretzat:

Astean behin tabernan gustura mintzatzeko elkartzen den herritar taldea, bizikleta hartuta txangoak elkarrekin egiten dituzten lagunak,etab. Ekimen arrakastatsuak dira; izan ere, bermatuta dago hainbat helburu lortzeko aukera: euskaltegian ikasitakoa praktikatu, euskaraz egiteko plaza eskaini, zuzeneko bidea izan inguruko euskaldunekin harremanetan jartzeko...

**Giro atseginean eta lagunartean,** ahalegin handirik gabe, ordutegi arazorik gabe.... zuk erabakiko duzu noiz eta nola.

**Edonork har dezake parte:** euskararen bidea egiten ari denak, praktikaren bidez euskara hobetu nahi duenak edota euskaraz bizitzeko aukera gehiagoren bila dabilenak.

**Parte-hartzea dohainik da,** eta hamaika abantaila eskura daitezke: emanaldietarako txartelak, opariak eta deskontuak harpidetzetan...

**IZEN-EMATEA: Etumeta AEK euskaltegian / 943 36 03 21**

## UDAL LIBURUTEGIA

Goizez, 10:00-13:00
Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30
Itxita ○
Goizez ●

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | ○ | ○ |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | ● | ○ |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | ● | ○ |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | ● | ○ |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

Sutegi Udal Liburutegia · Irazu kalea, 14 - 20170 Usurbil
Tel.: 943 360 692 · http://liburutegiak.blog.euskadi.net//usurbil/

## KZ-GUNEKO IKASTAROAK

### AURREZ AURREKOAK

**Google Apps**

**Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako** (16 ordu):
**16-25**: 09:00-11:00

**Argazkiak. Zure argazki guztiak antolatu edozein gailutik** (4 ordu)
**28-29:** 09:00-11:00

**Oinarrizko Internet**

**Enplegu bat lortu** (4 ordu):
**21-22:** 11:00-13:00

**Ofimatika -Software Librea**

**Ofimatika tresnak. LibreOffice** (20 ordu ):
**2-15:** 09:00-11:00

**Ofimatika orokorra** (40 ordu):
**01/07- 02/06 :** 09:00-11:00

**Smartphoneak eta tabletak**

**Musika aplikazioak zure gailuetarako** (2 ordu)
**01/30:** 09:00-11:00

### URRUNEKOAK

**Ofimatika -Software Librea**

**Ofimatika orokorra** (40 ordu):
**01/07 - 02/06**

**Ofimatiika aurreratua** (40 ordu):
**1/7- 2/6**

**Sare Sozialak 2.0**

**Facebook. Erabiltzaile gehien dituen sare soziala.** (4 ordu): **14-23**

**Sortu zure e-mail marketing kanpainak** (20 ordu):
**01/21 - 02/06** (Gaztelaniaz)

**Instagram, argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak** (4 ordu):
**01/28 - 02/06** (Gaztelaniaz)

**Smartphoneak eta tabletak**

**Wikiloc. Sortu eta partekatu zure kanpoko ekintzen ibilbideak** (20 ordu):
**7-23** (Gaztelaniaz)

Urtarrilean Kzgunea: goizez: 09:00-13:00
Kale Nagusia 37. · 20170 Usurbil · Tel.: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net · **www.kzgunea.eus**

# KULTUR AGENDA 2019ko **urtarrila**

| | | |
|---|---|---|
| Astelehena<br>01:00 Askatasuna plazan | URTEZAHAR GAUA: AROS DJ-A | 1 |
| 11:00-13:00 eta 16:30-19:30<br>Oiardo kiroldegian | GABONETAKO HAUR PARKEA | 2-3-4 |
| Larunbata<br>11:30 eta 19:30 Frontoian | ERREGEEN KABALGATA | 5 |
| Igandea<br>17:00 Sutegin | HAURRENTZAKO ZINEA: LEO DA VINCI, MONA LISA MISIOA | 13 |
| Asteartea<br>19:00 Potxoenean | ARANZADIREN HITZALDIA: ANDATZAKO GARAI BATEKO OKUPAZIOAREN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIO ARKEOLOGIKOA | 22 |
| Larunbata<br>12:30 Mikel Laboa plazatik | KANTU JIRA KALEZ KALE | 26 |
| Igandea<br>9:00 Mikel Laboa Plazatik | IRISASI BTT MARTXA HERRIKOIA | 27 |
| Igandea<br>19:00 Sutegin | DANTZA FILMA | 27 |

## ERAKUSKETA

| | | |
|---|---|---|
| Astelehena- Igandea<br>Sutegiko erakustaretoan | USURBILGO SORTZAILEEN 2018KO UZTA | Abenduak 14-<br>Urtarrilak 7 |



*Zuen deialdiak zabaltzeko, bidali hilaren 15a baino lehen kultura@usurbil.eus helbidera.*

**Usurbilgo Udala**
Soziokultura Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

**Usurbil Kultura**
*Herritarron tresna Usurbilgo Kultura zabaltzeko*
**kultura-usurbil.eus**

# USURBILGO KULTUR AGENDA

## 2019ko **urtarrila**

# DANTZA



URTARRILAK 27
**Dantza filma**

*Urte berri on!*

# EKINTZAK

## 1
Asteartea | 01:00 | Frontoian

## Urtezahar Gaua: **Aros DJ-a**

**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.
**Sarrera:** doan.

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**URTARRILAK 2,3 ETA 4**
**11:00-13:00 eta 16:30-19:30**
Oiardo Kiroldegian.



**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.
**Adina:** 2-12 urte bitartekoentzat.
**Sarrera:** Doan.
**Tailerrak:** Orriak markatzekoak, eskumuturrekoak, txotxongiloak, karetak, makilaiak...

**Txikientzako gunean:** puzgarriak, ludoteka, margolarien gunea...

**Handientzako gunean:** ohe elastikoak, puzgarriak...
Eta, gainera, egunero tailerrak eta ikuskizunak:

Urtarrilak 2: 17:30 Talo tailerra.
Urtarrilak 3 17:30 Ipuinkontalaria.
Urtarrilak 4 17:30 Diskofesta.

## 5
Larunbata | 11:30 eta 19:30 | Frontoian eta herrian zehar

## **Errege magoen** kabalgata

**Antolatzailea:** Ziortza Gazte Elkartea.
Urtero bezala Meltxor, Gaspar eta Baltasar gurean izango ditugu gure eskaerak entzuteko. Hau izango da beraiekin egoteko ordutegia:

**11:30** Postaria frontoian izango da etxeko txikienen eskutitzak jasotzen.

**17:00** Meltxor, Gaspar eta Baltasar San Estebandik abiatuko dira Usurbil aldera, aurten ibilbide berri batekin.

**19:30** Azken ekitaldia eta protagonistekin egoteko aukera frontoian.



## 13
Igandea | 17:00 | Sutegiko auditoriumean

## Haurrentzako zinea: **Leo Da Vinci, Mona Lisa Misioan**




**Sarrerak:** egunean bertan 3 €
**Nori zuzendua:** 6 urtez gorakoentzat.
**Iraupena:** 85 min.
**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.
**Laguntzailea:** Ziortza Gazte Elkartea.

Leo Da Vinci, pintore eta buruan ideia ugari duen asmatzaile gaztea, Mona Lisarekin, sute baten ondorioz etxea galdu duen neskarekin, erabat maitemindu da.

Leok lagundu egin nahi dio eta egoera konpon dezakeen abentura zoroa eta zirraragarria planeatu du. Urte batzuk lehenago Montecristo uhartetik gertu hondoratu zen piraten itsasontzia topatu nahi du ustez barruan dagoen altxorra berreskuratzeko. Altxor hori lortuz gero, Mona Lisaren arazoak konponduko liratekeela uste du. Ondorioz, lagunekin batera, erraza izango ez den bidaiari ekingo dio. Baina ez dira altxorra topatu nahi duten bakarrak izango.

## 22
Asteartea | 19:00 | Potxoenean

## **Hitzaldia:** Andatzako garai bateko okupazioaren azterketa eta interpretazio arkeologikoa



**Antolatzailea:** Usurbilgo Udala.
**Hizlariak:** Manu Ceberio Rodriguez eta Izaro Quevedo Semperena (Aranzadi Zientzi Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Sailekoak).
Andatza mendigunearen inguruko okupazioari buruzko azterketa eta Interpretazio arkeologikoa egiten ari dira, eta aurten X. Prospekzio kanpaina egin dute. Betan egindako lanak eta lortutako emaitzak azaltzera datoz.

## 26
Larunbata | 12:30 | Mikel Laboa plazatik

## **Kantu-jira** kalez kale



**Antolatzailea:** Usurbilgo Kantu Taldea.
**Nori zuzendua:** Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

## 27
Igandea | 09:00 | Mikel Laboa plazatik

## **Irisasi BTT 2019** "Hotzak akabatzen...!" BTT martxa herrikoia



**Antolatzailea:** Andatza BTT.
**Babeslea:** Usurbilgo Udala.
**Bukaera:** Frontoian.

**Bi ibilbide:**
Motza 30km ingurukoa.
Luzea 40km ingurukoa.

**Izen ematea:** urtarrilaren 1etik 26ra, kirolprobak.com atarian.
Federatuek 18 euro; federatu gabeek 20 euro.
Txalekoa opari izena ematen duten lehendabiziko 500 partaideentzat. Probaren egunean ere izena emateko aukera izango duzu (8.45 baino lehen) eta 25 €ko prezioa izango du, federatu zein federatu gabeentzat. Parte hartu nahi duten 16 urtetik beherakoak jarri beharko dira harremanetan antolatzaileekin irisasibtt@gmail.com postaren bidez.
**Informazio gehiago:** andatzamendizale.info irisasibtt@gmail.com

## 27
Igandea | 19:00 | Sutegiko auditoriumean

## **"Dantza"** zinea

**Antolatzailea:** Noaua! Kultur Elkartea.
**Sarrera:** 6€. (Aldez aurretik Lizardin eta Noaua!n) Bazkideek 4€tan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.



Ekaitza lehertu da landako lan egun gogor baten ondoren. Atertu duenean, bizitza erne da lehen agor zen lurretik. Fruitu bat hazi eta heldu da, bizirik eutsi die izurrien erasoei, eta sagardoaren bizigai izango den sagar bihurtu da. Orduan, uzta ospatzeko tenorea da, topa egitekoa eta maitasunaren festan murgiltzekoa.
Bizitzaren zikloari buruzko istorio bat, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa da!
Gai unibertsalak, hemen sinbologia berezi batez jantziak. Dantza tradizionalen unibertso hipnotikoari dagokiona. Tradizioari, lurrari, haren jendeari, mitoei eta ohiturei egindako kantu poetiko bat. Izatearen mirariari buruzko kontaketa bat.

# ERAKUSKETA

### USURBILGO SORTZAILEEN 2018KO UZTA

**Noiz:** Abenduaren 14tik, urtarrilaren 7ra.
**Non:** Sutegi erakusketa aretoan.
**Antolatzailea:** Noaua! Kultur elkartea eta Sutegi Udal Liburutegia.

